MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

ZORIONTSU IZATEKO GAKOA

CAABI NGIR AM MBËKTE



LABAYRU FUNDAZIOA

AUDIO LIBURUA

IPUINA ENTZUN

DEGLUL LEEP- BI

Munduenea, munduko ipuinen etxea online

www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022
EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA, AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA: MACOUMBA NDIAYE MBAYE
JATORRIZKO TESTUAREN ZUZENKETA ETA AHOTSA: ABOUBACRY KANE DIACK
TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA
ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE
MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA
INPRIMATEGIA: GERTU
I.S.B.N: 978-84-19063-12-0
LEGE GORDAILUA: BI 01393-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

ZORIONTSU IZATEKO GAKOA



CAABI NGIR AM MBËKTE

LabayruFundazioa

HIZTEGIA
FIRI KADDU

- Zoriontsu = mbëkte
- Gako = caabi
- Asto = mbëkte
- Herritar = mbaam
- Gogoan hartu = dëkëndo
- Txutxu-mutxu = jappal
- Entzun = deey/wax si suuf
- Unean-unean = bës bu nek / Saa yu nek
- Sentitu = Yëg si xol
- Egin = def / jëf

Ipuin hau Senegalen gehien hitz egiten den tokiko hizkuntzetako batean jaso dugu, woloferaz. Frantsesa hizkuntza ofiziala izanik, wolof hizkuntza eta kultura ahoz transmititu dira batez ere, eta ipuin hau dugu horren adibide. Senegalen ez ezik, Mauritaniako, Maliko eta Gambiako estatuetan ere hitz egiten da.

Leep-bi dey wone bu baax cosaan bi feeñ si lakka diiwaan yiñu gëna lakka si biir Senagaal, te muy wolof. Lakka nasraan-yi faranse-la, loolu moo taj lakka-bi ak aada-bi deñ leen jottali si wox rek. Dinanu lakka wolof tam si Gambi, Moritani ak Maali.


EUSKAL
HERRIA
MAURITANIA
MALI
GAMBIA
SENEGAL

Senegalen bada herri txiki bat erdigunetik oso urrun dagoena: Mboss.
Si Senegal dafa am benna dëkka bu ndaw bu tuddu Mboss.





Iraganean, Mbosseko biztanleak abeltzainak eta nekazariak ziren, eta gameluz edo astoz mugitzen ziren batetik bestera, Baay Gallay eta Muusa aita-semeak bezalaxe.

Si jamaano bu njëkka, li ëppoon ci askanu Mboss ay sammakat ak baykat lañu woon. Sunu doon tukki ñoongi doon war si geleem walla mbaam. Noonu tam la Baay Gallay ak doomam Muusa daan def.





Goiz batean, astoz kalera joateko prestatzen ari zirela, galdetu zion Muusak aitari:

—Aita, zein da zoriontsu izateko gakoa?

Benna bës si subba, ñuy waajal takka mbaam-mi di waaja genna, Muusa nii:

—Waaw, Baay, lan moy caabi ngir am mbëkte?





Aita pentsakor geratu zen, eta erantzun zuen:

—Hitzen bidez azaldu beharrean, ekintzen bitartez erakutsiko dizut.

Baay Gallay taxaw di xalaat lu yagga, mu tontuko:

—Doom, balaa mala koy leeral si wox, dema lakoy won nga gis si ay jëfin.

Aita-semeak kalerantz abiatu ziren, aita astoaren gainean eta semea atzetik oinez.

Herritarrak txutxu-mutxuka hasi ziren:

—Aita txarragorik! Semea oinez ibiltzera derrigortzea ere!

Baay Gallay ak doomam Muusa jublu si yoon-bi. Baay ji war si mbaam mi, doom ji feete ginaaw di dox ak tankam. Baay ji niko doxal toppama.

Biñu genne nii, nit ñiñu njëkka rommba di deeyante naan:

—Ndaw maak mii mo bon te ñakka xel! Naaj bu tangga bi baay yeg si mbaam te doomam di wommbat mbaam!









—Entzun duzu? —galdetu zion aitak Muusari.

—Bai, aita.

—Gogoan hartu, bada!

Semeak ez zuen ondo ulertu aitak zer esan nahi zion, baina gogoan hartu zuen.

—Degga nga de sama doom? —Muy laaj bi Baay Gallay laaj doomam Muusa.

—Waaw, baay.

—Kon nak jappal benna a-ngook!

Wante ba leegi doom-ji Muusa xamul li wox baayam-ji tekki.

Biharamunean, ostera ere galdetu zion, eta aitak erantzun:

—Igo asto gainera!

Halaxe abiatu ziren: semea astoaren gainean eta aita oinez.

Bës bi si toppa Muusa laajat Baayam luy caabi mbëkte. Baay ji tontu watt ko nii:

—Muusa, yegël si mbaam-mi!

Muusa yeg si mbaam-mi, baayam bi di wommat mbaam-bi.



Herritarrak mar-marrean hasi ziren:

—Seme lotsagabeagorik! Aita zaharra oinez joatera behartzea ere!

Niit ñi ñuy daje yeppa di naan:

—Xale be aka reew! Naaj bu tang bi moom moongi waronaa teetee mbaam, baayam yeg.





—Entzun duzu? —galdetu zuen aitak.

—Bai, aita.

—Gogoan hartu, bada!

Semeak ez zuen ulertu aitak zer esan nahi zion, baina esana egin zuen: gogoan hartu zuen.

—Sama doom, degga nga de? —Baay Gallay niko sama doom yaangi dëgg.

—Waaw, baay.

—Kon nak jappal ñaar a-ngook!

Waay ba leegi Muusa xamul li wox baayam-ji teeki. Wante mu baayi si xelam.

Hurrengo goizean, ostera ere galdetu zion, eta aitak astoaren gainetik erantzun:

—Oraintxe ikusiko duzu. Igo nirekin!

Eta aita-semeak, biak astoaren gainean jarrita, herrirantz abiatu ziren.

Herritarrek esan zuten orduan:

—Asto gaixoa! Aita-seme hauek ez dituzte abereak batere errespetatzen!





Bës bi si toppaat Muusa laajat Baayam luy caabi mbëkte.
Baay bi tontu watt niko:
—Waaw leegi nga gisko! Kaay yëg ak man ci mbam-mi.
Baay ak doom yëg si mboam, jem si dekka yi.
Dëkka yuñu rommba yeppa nit ñaangi naan rek:
—Ndeysaan bi mbaam moo sonna! Baay bi ak doomaam amuñu benna yërmannde si mala-yi!

—Entzun duzu? —galdetu zion aitak Muusari.

—Bai, aita.

—Gogoan hartu, bada!

Semeak ez zuen ulertu, orduan ere, aitak zer esan nahi zion, baina esana egin zuen: gogoan hartu zuen.



—Sama doom, degga nga de? —Lii la Baay Gallay laaj doomam Muusa.

—Waaw, baay.

—Kon nak jappal ñet a-ngook!

Waay ba leegi doom-ji xamagul li kaddu baay-ji di tekki. Wante mu def liko baayam digël, mu baayi si xelam





Biharamun goizean, karga gainean hartuta eta astoa atzetik jarraika abiatu ziren aita-semeak herrirantz.

Eta herritarrek esan zuten:

—Astoa edukita, trasteak aldean? Aita-seme aldrebesagorik!



Bës bi si toppaat, ñoom ñaar yeppa, baay-ji ak doom-ji yenu seen bagaas, mbaam-mi toppa leen, Ñuy teetee mbaam, di rommba dëkka yi.

Nit yii ñuy rommba di wox naan:

—Ñaar ñii baay ak doom ño ñakka boppa! Ñoongi am seen mbaam diki wommat di yenu seen bagaas!

—Entzun duzu hori? —galdetu zion aitak Muusari.

—Bai, aita.

—Gogoan hartu, bada!

Egun hartan ere ez zuen semeak ulertu aitak zer esan nahi zion. Hala ere, gogoan hartu zuen, aurreko egunetan legez.

—Degga nga loolu de sama doom? —Lii la Baay Gallay laaj doomam Muusa.

—Waaw, baay.

—Kon nak jappal ñeent a-ngook!

Waay bës bi tam, ba leegi doom-ji xamagul li kaddu baay-ji di tekki. Wante mu wey di def iko baayam digël, mu baayi si xelam.





Etxera heldu zirenean, aitak semeari:

—Ikusi duzu, Muusa?

—Zer, aita?

—Egiten duzuna egiten duzula, beti egongo da norbait txarto esaka ibiltzeko prest.



Biñu yegge si kër gë Baay Gallay neko:

—Gis nga loolu de Muusa Sama doom?

—Loolu Ian Baay?

—Leppa loo deff, loo mën di jëf, dina am ko xamni dina la wox leeneen linga wara def.



Muusa isilik geratu zen. Eta aitak galdetu zion:

—Zein da zoriontsu izateko gakoa, seme?

Muusak isilik jarraitu zuen.

Muusa noppi ab diir di deglu, Baayam laaj ko ni:

—Doom, leegi nan la nit wara def nguir dunndu si mbëkte?

Doom ji, Muusa noppi rek.





—Bada, unean-unean sentitzen duzuna egin, eta damurik gabe bizitzea —izan zen Baay Gallayk semearentzat gordeta zeukan erantzuna.

Eta orduan, bai. Muusak atoan ulertu zuen aitak zer esan nahi izan zion. Eta gogoan hartu zuen betiko.



—Def linga yëg si sa xol ak linga war def saa sune, ngir dunndu ak xel bu dal —Lii moy tontu bi Baay Gallay deñcaloon doomaam Muusa.

Waaw kay. Leegi nak la Muusa dooga xam si saasi liko baayam bëggoon wox. Lii moy njanngat bi Muusa am si baayam ba fawwa.



MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

*Munduenea. Munduko ipuinen etxea*n hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?



Munduenea. Munduko ipuinen etxea defa tënk funki leep, yu book si yeneen aada yuy annda nekkando si sunu gox, leep yunu jaglel xaley yu goor ak yu jigeen diggante 6 ak 10 at. Ak yii leep deñoo bëgga wone njeriñ biñu jaxaso aada-yi ak lakka-yi di anndil. Duggel si kër leep-yii, te nga gisleen si sa lakka ak si lakka euskera.


MUNDUENEA
HITZA HITZ
A PALABRA É A PALABRA


MUNDUENEA
DEABRUAREN ZUBIA
EL PONT DEL DIABLE


MUNDUENEA
GIZON ABERATSA
ایک امیر آدمی


MUNDUENEA
KATU ARTISTAK
LES CHATS ARTISTES


MUNDUENEA
EID AL FITR-EKO OPARIA
هدية عيد الفطر


MUNDUENEA
MATSU, ITSASOKO JAINKOSA
妈祖，海上之神


MUNDUENEA
DORTOKA ZEKENA
IJAPA OLOJUKOKORO


MUNDUENEA
TXILIBITU MAGIKOA
FLUIERAȘUL MAGIC


MUNDUENEA
CAIPORA



9 788419 063120

LabayruFundazioa